

OÑATIKO UDALAREN ADIERAZPENA

2026ko otsailaren 2 eta 3an komunikabideetatik Oñatin izandako sexu-eraso baten inguruan martxan den prozesu judizialaren gaineko albistea jaso genuen. Honen harira, Oñatiko Udalak honakoa adierazi nahi du;

Ezer baino lehen, babes osoa eskaini nahi diogu salatzaileari eta bere ingurukoei, bidegabeki luzea izaten ari den prozesu judizial honetan. Era berean, sexu-indarkeria eta indarkeria matxista mota oro desagertzeko gure konpromisoa berretsi nahi dugu, eta Udaletik indarkeria matxistaren prebentzio, arreta eta erreparaziorako bideak urratzen jarraitzeko asmo irmoa adierazi nahi dugu. Izan ere, komunikabideek aste honetan ekarri diguten hau ez da kasu isolatu bat.

2018 urteaz geroztik martxan dago indarkeria matxistaren biktima diren emakumeen arreta koordinatzeko protokoloa. Bertan parte hartzen dute osasun zentruak, udaltzaingoak eta ertzaintzak, udaleko gizarte zerbitzuek eta berdintasun arloak, eta aurrerantzean baita Emakumion Etxiak ere. Azken bost urteetan 76 emakumek jo dute protokoloan parte hartzen duten zerbitzuetakoren batera. Horietatik guztietatik, 16 izan dira sexu indarkeria salatu duten herritarrek.

Esan bezela, ez da kasu isolatu bat, ez eta herritarren multzo zehatz bati eragiten dion arazo konkretu bat ere; Errotik ezabatu beharreko egiturazko indarkeria da. Bide horretan jarraituko dugu lanean Udalean eta bide horretan ari dira herriko eragile feministak ere. Hala, iganderako deitu duten agerraldiarekin bat egiteko deia zabaltzen dugu Udaletik ere.

Azkenik, gogorarazi nahiko genuke Udalak gizarte zerbitzuen bitartez eta aurki emakumion etxiaren bidez ere, halako egoeren aurreko aholkularitza eta bidelaguntza eskaintzen duela – salaketarik bideratu nahi ez den kasuetan ere-. Horrez gain, Gipuzkoako Foru Aldundiak Hariberria zerbitzua kudeatzen du, eta honek, emakumeenganako sexu indarkeriaren arretarako 24 orduko zerbitzua eskaintzen du, urteko egun guztietan.

Oñatin, 2026ko otsailaren 6an
Oñatiko Udalak